

1.-Esan esaldi edo irudi hauek ZEIN arori dagozkion (Paleolito, Neolito, Metal Aroa):

Animaliak margotzen zituzten eta kolore ezberdinak erabiltzen zituzten.	
Metalak erabiltzen hasi ziren.	
Sedentario bihurtu ziren.	
Herrien arteko trukeak egiten hasi ziren.	
Sua egiten ikasi zuten.	
	
Kobrea, burdina eta brontzea erabiltzen hasi ziren.	
Harri gogorrak lantzen ikasi zuten eta, beraz, lanabes hobeak egiten zituzten.	
Iruinarriak, trikuharriak eta harrespilak egiten zituzten.	
Txaboletan edo kobazuloetan bizi ziren.	
Ehunak fabrikatzen hasi ziren.	
	
Merkataritza eta garraioak sortu ziren.	
Ehizatzeke behar zituzten tresnak harriekin egiten zituzten.	
Zeramika asmatu zuten.	
Materiala garraiatzeko idiz bultzatutako gurdiak eta kanoak erabiltzen zituzten.	
	
Kobazuloen sabaietan eta hormetan margotzen zuten. Horregatik, labar-artea deitzen zaio.	
Animaliak etxekotzen eta zerealak landatzen ikasi zuten.	
Ontziak eta bitxiak egiten zituzten.	
	
Leku bateko janaria bukatzen zenean, beste batera joaten ziren.	

2.-Adierazi ezaugarri hauek Paleolito, Neolito edo Metal Arokoak diren. (X jarri)

	Paleolito	Neolito	Metal Aroa
Jendea herrixketan bizi zen.			
Tribuetan antolatzen ziren.			
Larruz janzten ziren.			
Metalezko objektuak erabiltzen zituzten.			
Denak jarduera guztietan egoten ziren.			
Ehizatik eta bilketatik lortutako elikagaiak jaten zituzten.			
Pintura eskematikoak egiten zituzten.			

3.-Bukatu esaldiak karratuetan dauden hitzekin

a) Historiaurrea...

...gizakiek metalezko objektuak egiten ikasi zuten.

b) Paleolitoan...

...gizakiak ehizatik, arrantzatik eta bilketatik bizi ziren.

c) Metal Aroan

...gure iraganeko lehen aroa da..